


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 jaitsi dira 2023ko martxoan

Urte arteko terminoetan, 2023ko martxoan 2022ko martxoaren aldean, prezioen igoera % 7,1ekoa izan da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 jaitsi da 2023ko hirugarren hilabetea, bigarrenaren aldean. 2022ko hilabete berarekin alderatuta, kostuak % 7,1 igo dira.

Etxegintzako kostuak hil artean % 0,1 jaitsi dira, eta Obra Zibilekoak % 0,4. 2022ko martxoarekin alderatuta, prezioak % 7,1 igo dira, bai Obra Zibilean, bai Etxegintzan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin, 2023ko otsailarekin, alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,2 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuek ez dute aldaketarik izan. Urte arteko terminoetan, aldiz, lehengaien kostua % 8,6 igo da, eta eskulanarena % 2,1.

Etxegintzaren sektorean lehengaien kostuak % 0,1 egin du behera hil batetik bestera, eta Obra Zibilarenak % 0,5. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 8,7 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 8,5.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Martxoa 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,6	-0,1	7,1
Eraikinak	125,9	-0,1	7,1
Obra zibila	129,6	-0,4	7,1
Lehengaiak	129,0	-0,2	8,6
Eraikinak	128,1	-0,1	8,7
Obra zibila	132,8	-0,5	8,5
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioak, 2023ko martxoan 2022ko martxoaren aldean igoera handienak izan dituztenak, sektore hauetan kokatzen dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 17,0), *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 16,1), *Mineral ez-metalikoen industria* (% 15,0) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 12,8). Aitzitik, hauek dira bi sektore bakarrak zeinetan lehengaien prezioak jaitsi diren: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 17,6ko jaitsiera) eta *Petrolioia fintzea* (% 14,7koa).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Martxoa 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	15,0
Zuraren eta kortxoaren industria	16,1
Petrolioia fintzea	-14,7
Industria kimikoa	6,8
Kautxua eta plastikoa	12,8
Produktu mineral ez-metalezkoak	17,0
Metalgintza	8,1
Metalezko artikulak	5,0
Material elektronikoa	2,3
Material elektrikoa	2,4
Makineriaren fabrikazioa	5,7
Altzarigintza	7,8
Energia elektrikoa eta gasa	-17,6

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Apirilaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62